



BERGARAKO UDALA

EUSKARA ZERBITZUBURUA IZENDATZEKO DEIALDIA

EUSKARA EGIAZTATZEKO ARIKETAREN INGURUKO JAKINARAZPENA ETA MEREZIMENDUAK EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA

Esp. 2024LAAU0017

Deialdi honetan parte hartzen ari diren izangaien gogorarazten zaie oinarrieta ondorengoa jasotzen dela:

“— *Euskara egiaztatzeko ariketa: Euskararen ezagutza egiaztatzeko probak egingo dira. Derrigorrezkoa eta baztertzailea hautagai guztientzat. “Gai” edo “Ez gai” baloratuko da.*

4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egingo dira.

IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak erabakiko du noiz eta non egingo den azterketa.

Ez dute euskarako azterketa egin beharrik izango euskara-maila egiaztatzeko azterketak egin baino lehen Epaimahaiari 4. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiria aurkezten diotenek.

Hori horrela eta, izangaiak eskabide orrian aurka azaldu ez direnez, hizkuntza eskakizunik altuena ofizioz egiaztatuta, prozesuan jarraitzen duten izangai guztiekin dute 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta 72XXXX67M izangaiak izan ezik, eta beraz, epaimahaiak erabaki du hau **deitzea 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba** egitera, baldin eta oposizioaldiko ariketa teoriko eta praktikoa gainditzen baditu.

Proba hau 2025eko urtarrilaren 16tik 31ra bitartean izango da, data zehatzaren eta lekuaren berri aurrerago emango delarik.

Gogoraraztea ere oinarrieta ondorengoa jasotzen dela:

“*Bederatzigarrena. Merezimenduen fasea (lehiaketa).*

Azterketen fasea gainditzen duten hautagaiaiak merezimenduen fasera igaroko dira.

Fase honetan guztira 45 puntu lortuko dira.

Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu edo adierazi ez diren merezimendua eta epaimahaiak emandako epean aurkeztu ez direnak. Epe hau oposizioan aurreikusitako azken probarako deiarekin batera argitara emango da web-orrian.”

Hortaz, jakinarazten da eskabidean alegatutako **merezimendua**, eta ofizioz egiaztatu ezin direnak edo ezin izan direnak, **egiaztatzeko dokumentuak aurkezteko epea 2024ko abenduaren 23tik 2025eko urtarrilaren 6a arte** izango dela.

Kontutan izanda, alegatu diren merituen artean daudenean, honako baldintza/informazio hauek ofizioz egiaztatu eta/edo espedienteari gehitu ahalko zaizkiola, interesdunek eskaera orrian horretarako baimena ematen duela adierazi badute:

- Nortasun-datuak egiaztatzea
- Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak).
- Hizkuntza-eskakizunik altuena (Euskara).
- Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) egindako eta gainditutako ikastaroen zerrenda.

Halaber, egindako zerbitzuen akreditaziorako Bergarako Udalean egindako zerbitzuak, alegatu bai, baina ez direla egiaztagirien bidez ziurtatu behar; izan ere, izangaien espediente pertsonaletan jasotako datuen arabera baloratuko dira.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan

Epaimahaiko idazkaria



AYUNTAMIENTO DE BERGARA

CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN DEL PUESTO DE JEFE/A DEL SERVICIO DE EUSKERA

COMUNICACIÓN SOBRE EL EJERCICIO DE ACREDITACIÓN DE EUSKERA Y PLAZO DE PRESENTACION DE LA DOCUMENTACIÓN ACREDITATIVA DE LOS MÉRITOS

Esp. 2024LAAU0017

Se recuerda a las personas aspirantes que están participando en esta convocatoria que en las bases se recoge lo siguiente:

“– Ejercicio de acreditación de euskera: Consistirá en la realización de pruebas para acreditar el conocimiento de euskera. De carácter obligatorio y eliminatorio para todas las personas aspirantes. Se valorará como “Apto” o “No apto”.

Consistirá en realizar pruebas de acreditación del perfil lingüístico 4.

El IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública) establecerá la fecha y lugar para la realización del examen.

Quedarán exentas de realizar el examen de euskera aquellas personas que, antes del inicio de las pruebas de conocimiento de euskera, aporten ante el Tribunal documento acreditativo de estar en posesión del perfil lingüístico 4.”

Siendo así y habiendo acreditado de oficio el perfil lingüístico más alto, dado que los aspirantes no se han opuesto en la instancia de solicitud, todos los aspirantes que continúan en el proceso tienen acreditado el perfil lingüístico 4 a excepción de la persona aspirante 72XXXX67M, por lo que el Tribunal acuerda **convocarle a la realización de la prueba de acreditación del perfil lingüístico 4**, siempre que supere el ejercicio teórico y práctico de la fase de oposición.

Esta prueba tendrá lugar entre el 16 y el 31 de enero de 2025, dándose a conocer la fecha exacta y el lugar más adelante.

También se recuerda que en las bases se recoge lo siguiente:

“Novena. Fase de méritos (concurso).

Aquellas personas aspirantes que hayan superado la fase de los exámenes pasarán a la fase de méritos.

En esta fase se obtendrán en total 45 puntos.

No serán valorados los méritos que no se hayan alegado o indicado en la instancia o no se hayan presentado en el plazo concedido por el tribunal. Este plazo será publicado en la página web junto con la convocatoria de la última prueba prevista en la oposición.”

Por ello, se informa que el **plazo de presentación de la documentación acreditativa de los méritos** alegados en la solicitud, y que no puedan o no hayan podido ser acreditados de oficio, será del **23 de diciembre de 2024 al 6 de enero de 2025**.



Teniendo en cuenta que, si se encuentran entre los méritos alegados, siempre que la persona interesada lo autorice en la hoja de solicitud, los siguientes requisitos/informaciones podrán comprobarse de oficio y/o incorporarse al expediente:

- La acreditación de los datos personales
- Títulaciones académicas (universitarias o no universitarias).
- El perfil lingüístico más alto (Euskera).
- Certificado de cursos: Relación de los cursos realizados y superados a través del IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública).

Asimismo, para la acreditación de los servicios prestados en el Ayuntamiento de Bergara, deberán ser alegados, pero no deberán ser acreditados documentalmente, ya que se valorarán de acuerdo con los datos obrantes en los expedientes personales de las personas aspirantes.

En Bergara, a fecha de la firma electrónica
La secretaria del tribunal



EKS | CSV: ESKU3c71bf21-10e9-4994-8052-dd4e3a23c368

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>